



Ebazpena, 2008ko urtarrilaren 9koa, Ikastetxeen zuzendariarena; honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialetako proba librean deialdia arautu da eta probak nola egingo diren finkatu da.

1.- 2008. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialek araubide librean matrikulatutako ikasleentzako probak egingo dituzte ematen dituzten hizkuntzetako ziklo edo maila guztietan:

- Oinarrizko Maila
- Tarteko Maila
- Goi Mailako Zikloa

2.- Eskola hauetan matrikulatzeko ezinbestekoa da 16 urte edukitzea edo 2008. urtean betetzea.

3.- Hizkuntza bakoitzean, pertsona bakoitza maila bakar batean matrikula daiteke araubide librean.

4.- 2007-2008 ikasturtean hizkuntza ofizial batean araubide ofizialean matrikulatutakoak ezin dira matrikulatu araubide librean hizkuntza bereko ezein mailatan.

5.- Ikasle libreek ikasturte bakoitzean deialdi bat bakarrik edukiko dute maila bakoitza gainditzeko. Probak maiatzatik irailera bitartean egingo dira, eskolek zehazten dituzten egunetan.

6.- Oinarrizko Mailaren Egiaztagiria eskuratzeko, maila horretan matrikulatuko ikasle libreek proba bat egingo dute maiatzatik irailera bitartean, eskolek zehazten dituzten egun eta orduetan. Proba honetan ebaluazio positiboa lortzen duten pertsonen Oinarrizko Mailaren Egiaztagiria eskuratu dute.

7.- Tarteko Mailaren Egiaztagiria eskuratzeko, maila horretan matrikulatutako ikasle libreek ebaluazio positiboa lortu behar dute ondoko trebetasun hauetan: entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamena. Trebetasunetako baten ebaluazioa negatiboa izateak Egiaztagiria lortzea eragoziko du.

Tarteko Mailako ikasle libreek lehenbizi idatzizko proba egingo dute, mintzamena ez beste trebetasun guztiak ebaluatzeko. Idatzizko proba bera izango da ikasle guztientzat, eta ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako datetan egin beharko da, egun eta ordu beretan, eskolek zehazten dituzten tokietan.

Idatzizko probako hiru trebetasunetan ebaluazio positiboa lortzen dutenek ahozko proba egin beharko dute mintzamena ebaluatzeko; eskolek zehaztuko dute non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den. Proba honetan ere ebaluazio positiboa lortzen duten ikasleek Tarteko Mailaren Egiaztagiria eskuratu dute.

Idatzizko proban ebaluatzen diren trebetasun guztiak gainditzen ez dituztenei, probaren emaitzen berri ematearekin batera, Tarteko Mailaren Egiaztagiria ezin dutela eskuratu azalduko zaie. Horrez gainera, azalduko zaie trebetasunen baten ebaluazio positiboa lortu arren, ez dela kontuan edukiko hurrengo deialdietan.



Halaber, jakinaraziko zaie, hori guztia horrela izanik ere, nahi izanez gero ahozko proba egin dezaketela, eta horretarako berariazko eskaera aurkeztu behar dutela idatziz, ezarritako epealdiaren barruan. Argi eta garbi ohartaraziko zaie proba honen emaitza edozein dela ere ez dutela jasoko Tarteko Mailaren Egiaztagiria, ez baitute gainditu beste trebetasunetako bat, eta adieraziko zaie gainditutako trebetasunak ez direla aintzat edukiko hurrengo deialdietan.

Ahozko proba egitea behar den bezala eta ezarritako epealdiaren barruan eskatzen dutenei proba-deialdia bidaliko zaie, eskola bakoitzak zehazten dituen tokian, egunean eta orduan egiteko.

Tarteko Mailaren Egiaztagiria eskuratzen ez dutenek ziurtagiri akademikoa eskatu ahal izango dute, 2008ko deialdian ebaluazio positiboa lortuta zein trebetasun gainditu dituzten adierazteko.

8.- Goi Zikloaren Egiaztagiria eskuratzeko, ziklo horretan matrikulatutako ikasle libreek ebaluazio positiboa lortu behar dute ondoko trebetasun hauetan: entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamina. Trebetasunetako baten ebaluazioa negatiboa izateak Egiaztagiria lortzea eragotziko du.

Goi Mailako Zikloko ikasle libreek lehenbizi idatzizko proba egingo dute, mintzamina ez beste trebetasun guztiak ebaluatzeko. Idatzizko proba bera izango da ikasle guztientzat, eta ebazpen honen eranskinean zehaztutako datetan egin beharko da, egun eta ordu beretan, eskolek zehazten dituzten tokietan.

Idatzizko probako hiru trebetasunetan ebaluazio positiboa lortzen dutenek ahozko proba egin beharko dute mintzamina ebaluatzeko; eskolek zehaztuko dute non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den. Proba honetan ere ebaluazio positiboa lortzen duten ikasleek Goi Zikloaren Egiaztagiria eskuratuko dute.

Idatzizko proban ebaluatzen diren trebetasun guztiak gainditzen ez dituztenek ezin izango dute ahozko proba egin.

Gasteizen, 2008ko urtarrilaren 9an

IKASTETXEEN ZUZENDARIA

Sin.: Patxi X. Olabarria Furundarena



I. ERANSKINA

MAIATZA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
19	20	21	22	23
				10:30-13:00 EUSKARA TARTEKO MAILA (B1)
				15:00-17:30 EUSKARA TARTEKO MAILA (B1)

EKAINA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
2	3	4	5	6
		9:00-11:30 ALEMANA TARTEKO MAILA (B1)	9:00-12:30 EUSKARA GOI ZIKLOA	9:00-13:30 INGELES GOI ZIKLOA
	11:00-13:30 INGELES TARTEKO MAILA (B1)			
	15:00-17:30 INGELES TARTEKO MAILA (B1)	15:00-17:30 FRANTSESA TARTEKO MAILA (B1)	15:00-18:30 EUSKARA GOI ZIKLOA	
17:30-19:30 ESPAINOLA TARTEKO MAILA (B1)				
9	10	11	12	13
9:00-13:30 FRANTSESA GOI ZIKLOA	9:00-13:30 ALEMANA GOI ZIKLOA 9:00-13:30 ESPAINOLA GOI ZIKLOA			



IRAILA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1	2	3	4	5
9:00-11:00 INGELES OINARRIZKO MAILA (A2) 9:00-11:00 ESPAINOLA OINARRIZKO MAILA (A2)	9:00-11:00 EUSKARA OINARRIZKO MAILA (A2)	9:00-11:00 ALEMANA OINARRIZKO MAILA (A2)	9:00-11:00 FRANTSESA OINARRIZKO MAILA (A2)	